



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

MAHATS-UZTAK BALIOESTEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LIZITAZIO-PLEGUAN HAZI FUNDAZIOAK ESKATUTAKO GUTXIENENKO ESPERIENTZIAREN BALDINTZARI BURUZKO TXOSTENA

Esp.: 152

Laburpena:

toCOsoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) Osoko Bilkurak, arestian aipatutako kideak elkartuta, mahats-uzten balioespen-zerbitzuak kontratatzeke lizitazio-pleguan (2015eko uztailaren 27an argitaratutakoa) HAZI Fundazioak eskatutako gutxieneke esperientziaren baldintzari buruzko txosten hau jaulkitzea erabaki du, 2015eko irailaren 16an egindako bileran.

I.- Txostenaren xedea

1. 2015eko abuztuaren 15ean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren korporazio-postontzian (infocompetencia@avdc.es) nekazaritza-ingeniari batek aurkeztutako idazkia sartu zen.

Idazkian aipatzen zenez, 2015eko uztailaren 27an argitaratutako mahats-uzten balioespen-zerbitzuak kontratatzeke lizitazio-pleguan HAZI Fundazioak eskatutako gutxieneke esperientziaren baldintza baliteke bateraezina izatea lehiaren araudiarekin¹.

¹ Idazkia hemen kontsulta daiteke: <http://www.hazi.es/es/perfil-contratante/licitaciones-adjudicadas/6163-pliego-para-la-contratacion-de-servicios-de-estimacion-de-cosechas-de-vina.html> Azken bisita 2015eko irailaren 15ean.



II.- Aztertu den lizitazioa

2. Mahats-uzten balioespen-zerbitzuak kontratatzeko pleguan ezartzen denez, HAZI Fundazioak EAEn dauden hiru jatorri-deituren babespeko txakolinen (Getariako Txakolina, Arabako Txakolina eta Bizkaiko Txakolina) ziurtagiria egiten du. Horretarako, mahats-uztak balioesteko zerbitzu espezializatuak kontratatu behar ditu. Beraz, hauxe da kontratuaren xedea:

mahats-uzten balioespen-zerbitzuak eskaintzea, eranskin honetan xedatutakoarekin bat etorritz.

- PE-CER-TX 03 Uzta Balioesteko Prozedura.

Plegu horrek honako nahitaezko baldintza hau ezartzen du (11. atala):

Gutxienez hiru urteko esperientzia izatea BJD/AGBren uztak balioesteko zerbitzuen eskaintzan eta BJD/AGB duten produktuen pleguak ezagutzea².

Pleguak ez du ezartzen prestakuntza-baldintzarik.

Uzta Balioesteko Prozeduran (PE-CER-TX-03, 2. BERRIKUSPENA), hau da, pleguaren eranskinean, gutxieneko prestakuntza-baldintza hau agertzen da (4. atala): «Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa edo ikasketa teknikoren batean lizentziaduna» izatea. Esperientzia-baldintza, berriz, uzten eta nekazaritza-laborantzen balioespen, tasazio edota zenbaketak egiten gutxienez hiru urteko esperientzia izatea da.

Ez pleguan, ez eranskinean, ez da gutxieneko esperientzia ezartzeko arrazoirik ematen.

3. Uzta Balioesteko Prozeduraren 5. atalean («Metodoa») ezarritakoaren arabera, uzta balioesteak honako lan hauek egitea esan nahi du:

«1. Balioetsi behar den azalera mugatu, oinarritzat mahats-erregistroko datuak, ortoargazkiak eta/edo azalera horri buruzko informazioa ematen duen edozein agiri hartuz.

2. Laginak. Lursail bakoitzean ausazko laginketa sistematiko edo geruzatuaren bidez hartuko dira, egoki izanez gero.

Laginketa-unitatetzat mahatsondo-enborra hartuko da.

Laginak aukeratzeko, honakoa hartuko da kontuan:

2.1. Lursailaren ingurua mugatzen duen lehenengo lerroan dauden eta lursailaren barneko elementu iraunkorren alboko lerroetan dauden populazioko mahatsondo-enbor guztiak baztertu, lursailaren zati handi bat ez badira. Hala,

² Babestutako Jatorri Deitura (BJD) eta Adierazpen Geografiko Babestua (AGB).



laginak multzo bakoitzean dauden mahatsondo-enborren kopuruaren arabera proportzionalki banatuko dira.

2.2. Halaber, alde batera utziko dira laginketa-multzoaren adierazgarri ez diren mahatsondo-enbor guztiak.

2.3. Ausazko laginketa geruzatua egiten bada, laginak proportzionalki banatuko dira populazioaren banako kopuruarekiko estratu bakoitzean.

2.4. Mahatsondo-enborren gutxieneko laginketa 6 unitatekoa izango da lursaileko, zeharka edo lerroan, landaketa-esparruaren arabera, baina gehienez ere 3 unitate landatuko dira hektareako.

3. Mahatsondoen lursailaren azpizatiketa. Balioetsi behar diren azpi-lursailak zehazteko honako hau hartuko da kontuan: landatutako mahats-barietatea, eremuen egoera begetatiboa, lursailaren orientazioak, etab. Eta azpi-lursailetan, berriz, honako jarduera hauek egingo dira:

4. Mahats-barietate bakoitzaren landare-kopurua zenbatu, lursailean dauden landareak zenbatuz edo landatutako azalera (m^2) eta landaketa-eremuan (landareko m^2) kopurua kalkulatz.

Landaketa-eremua kalkulatzeko, landare-lerroen artean batez beste dagoen tartea eta lerroan landareek beren artean duten batez besteko tartea biderkatuko dira.

Lerroen arteko tartea lortzeko, behatu behar den azpi-lursaileko bi gune neurtuko dira gutxienez, lerroen homogeneotasunaren arabera.

Landareen arteko tartea lortzeko, lerro berberean elkarren segidan dauden hamaika landareren arteko tartea neurtuko da gutxienez, eta datu hori hamar zenbakiaz zatitu behar da. Prozedura hori behatu behar den azpi-lursailaren bi gunetan egingo da gutxienez, landareek lerro bakoitzean daukaten homogeneotasunaren arabera.

5. Landare bakoitzeko mahats-lukuak zenbatu. Aurrez kalkulaturako landare-kopuruaren arabera, azpi-lursailaren barnean gune batzuk aukeratuko dira, gune bakoitzean segidako sei landare hartzen dira gutxienez lerro berean edo zeharka, landaketa-eremuaren arabera, eta mahats-lukuen guztizko kopurua zenbatzen da, datua aukeratutako landare-kopuruarekin zatituta.

Hala, landare bakoitzak batez beste zenbat mahats-luku dituen lortzen da (mahats-lukuak landareko).

Prozedura hori behatu behar den azpi-lursailaren bi gunetan egingo da gutxienez, landareen mahats-produkzioak duen homogeneotasunaren eta landatutako azalera osoaren arabera.

6. Mahats-lukuen batez besteko pisua kalkulatu. Pisaldi bakoitzean landarearen mahats-luku guztiak biltzen eta pisatzen dira. Ondoren, datu hau pisatutako mahats-luku guztien kopuruaz zatitzen da, mahats-lukuen batez besteko pisua lortzeko (gramoak mahats-lukuko).

Prozesu hori behatuko den azpi-lursailaren bi gunetan egingo da gutxienez, mahats-lukuen tamainak daukan homogeneotasunaren eta landatutako azalera osoaren arabera.

7. Uzta balioetsi. Aurrez lortutako datuekin eta honako formula honen bidez kalkulatzeko da:



Uztaren balioespena = (Kg./mahats-lukuko) x (mahats-lukuak/landareko) x landare-kop.

Mahatsondo-lursaileko kg-tan adierazita.

Mahatsondoen lursaileko uzta osoaren balioespena, behatu diren azpi-lursailetakozuzten balioespenen batura da.

Behatu den lursaileko datuak, aurrez aipatutako eragiketekin lortutako datuekin batera, Uzten Balioespeneko datuen Orrian erregistratuko dira (2. eranskina).

Bestalde, behatu den lursaileko datuak, lursailaren titularrari buruzko datuekin eta uzta-balioespenaren azken emaitzarekin batera, Uzta Balioespenaren Aktak erregistratuko dira (1. eranskina).»

III. Arazoaren azterketa, lehiaren ikuspegitik

4. Sarrerako oztopotzat hartzen dira operadore berriak merkatu jakin batean sartzeko izaten diren zailtasun eta kostu guztiak; batzuetan, zailtasun eta kostu horiek ezinezko bihurtzen dute operadore berrien sarrera³.

Sarrerako oztopo horien artean, legezkoak, tekniko-ekonomikoak eta dagoeneko merkatuan dauden enpresek duten posizio finkatutik eratorritakoak bereiz daitezke⁴.

5. Administrazio publikoek merkatu batean sartzeko ez duten edo sarrera mugatzen duten legezko oztopoak ezartzen badituzte, oztopo horiek zenbait eskakizun bete behar dituzte, 17/2009 Legeak, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoak, dioena betez⁵:

- Bereizkeriarik ez egitea naziotasunagatik edo establezimenduaren kokapenagatik edo gizarte-egoitzagatik.
- Beharra: ordena publikoagatik, segurtasun publikoagatik, osasun publikoagatik edo ingurumenaren babesagatik justifikatuta egotea, edo natura-baliabideen eskasiagatik

³ LEHIAREN DEFENTSARAKO AUZITEGIA *Kontzentrazio Ekonomikoen Espedientearen Txostena C89/05 Igualatorio Medikoak*, 73. or. <http://www.cnmc.es/es-es/competencia/buscadorde/expedientes.aspx?num=C89/05&ambito=Concentraciones&b=&p=0&numero=C89/05&ambitos=Concentraciones&estado=0§or=0&av=1> (ebazpen honetan erabiltzen diren webgune guztien data 2014ko urriaren 14a da).

⁴ Batzordeak kontzentrazio horizontalak ebaluatzeko zuzentarauen 71. atalean ezarritako irizpideak, Kontseiluaren arautegiaren arabera, enpresen kontzentrazioari buruzko kontrolari dagokionez (2004/C 31/03). EBAO C 31/5, 2004eko otsailaren 5ekoa. <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2004:031:0005:0018:es:PDF>.

⁵ Azaroaren 23ko 17/2009 Legearen, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoaren, 5. artikulua (BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa). 20/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoaren arabera (BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10ekoa).



edo ezin nahasizko eragozpen teknikoak direla eta, merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatua bada.

- Proporzionaltasuna: mugaketa helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izatea, emaitza bera lortzeko aukera ematen duten neurri hain murriztailerik ez dagoelako.

Bereizkeriarik ezaren, beharraren eta proporzionaltasunaren eskakizunak betetzen ez dituzten legezko oztopoak egotea eragozpen bat da zerbitzuak oztoporik gabe emateko, eta, beraz, eragozpen bat da eragindako merkatuan lehia efektiboari eusteko.

Sarrerako oztopoek eragin negatiboak sortzen dituzte ezartzen diren ekonomietan, lehiaren tentsioa handitu dezaketen operadore berrien sarrera sustatzen ez dutelako, eta, horren ondorioz, zerbitzuak emateko baldintza hobeak ez direlako sortzen. Merkatuetan sarrerako oztoporik ez egoteak enpleguak sortzea, berrikuntza eta lehiaren hobekuntza sustatzen dute.

Horregatik, administrazioak arrazoirik gabeko oztopoak sortzea eragotzi behar du, horrelakorik balego, lehiako agintaritzak esku hartu beharko bailuke, dagozkion sustapen-gaitasunak erabiliz, edo, Legea baino maila txikiagoko arauen kasuak, aurkaratzeko gaitasunak erabiliz.

6. Pleguko eskakizunen eta uzta balioesteko prozedura jasotzen duen eranskinaren arteko koherentzia faltak argitasunik eza eragiten du lizitazioa lortzeko prestakuntza eta esperientziaren baldintzei buruz.

Egoera horrek zalantza sortzen du eskaintzaileen artean, eta ez ditu lehia gehitu dezaketen eskaintzak sustatzen.

7. Bestalde, lizitazioa lortzeko balioespen-prozeduran eskatzen den baldintza eragozpena da nekazaritza-munduarekin lotutako tituludun profesionalak lizitazioan sartzeko, uzten balioespen-zerbitzuak egiten hiru urtetik gorako esperientzia ez badute. Eta hiru urteko esperientzia hori eduki arren, BJD/AGBrekin loturarik ez dutenek ere ezingo dute lizitazioan parte hartu.

Bidezkoa da, beraz, HAZI Fundazioak lizitatutako zerbitzu-eskaintza eskuratzeko esperientzia-baldintza eskatzeko, beharra eta proporzionaltasunaren baldintzak biltzen diren ala ez aztertzea.

8. 17/2009 Legearen 5. artikulua zehazten du beharraren baldintza. Hain zuzen ere, ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumenaren babesagatik baimenen araubide bat justifikatzea, edo natura-baliabideen eskasiak edo ezin nahasizko eragozpen teknikoek merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatzen badute.



9. Lehiaren Euskal Agintaritzaren ustez, ez dago ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumenen babesaren arrazoirik BJD/AGBren uztak balioesteko zerbitzua eskaintzen duten hautagaiek gutxienez hiru urteko esperientzia izatea eskatzeko. Burutu beharreko lanak zehatz-mehatz agertzen dira "Uzta Balioesteko Prozedura" dokumentuan, banakako ekimenari aukera gutxi emanez, eta nekazaritza-arloari lotutako prestakuntza duen edozein profesionalak ezin hobeto beteko lituzke.

Baldintza horrek lizitazioak izan ditzakeen lizitatzailerik kopurua murriztu dezake, gaian ezagutza nahikoa duen nekazaritza-arloko edozein profesional baztertuz, eskatutako esperientzia-urteak ez dituelako, edo uzta-balioespenean esperientzia eduki arren, BJD/AGBren uztetan esperientziarik ez duelako.

Horri buruz, azpimarratu behar da, aurrez aipatutako "Uzta Balioesteko Prozedura" dokumentuak ez duela berezitasunik ezartzen BJD/AGBren uzten balioespenerako, beste uzten balioespenei dagokionez.

10. Ondorioz, adierazi behar da BJD/AGBren uzten balioespen-zerbitzuak eskaintzeko gutxienez hiru urteko esperientzia eskatzeak ez duela 17/2009 Legearen 5. artikuluan eskatzen den beharraren baldintza betetzen.

Baldintzaren beharra egiaztatuta ez dagoenez, ez da egokia eskakizunaren proportzionaltasuna eta diskriminazio-eza aztertzea.

IV.- Ondorioak

LEHENENGOA.- Sarrerako oztopoek eragin negatiboak sortzen dituzte ezartzen diren ekonomietan, lehiaren tentsioa handitu dezaketean operadore berrien sarrera sustatzen ez dutelako, eta, horren ondorioz, zerbitzuak emateko baldintza hobeak ez direlako sortzen. Merkatuetan sarrerako oztoporik ez egoteak enpleguak sortzea, berrikuntza eta lehiaren hobekuntza sustatzen dute.

BIGARRENA.- Pleguko baldintzen eta uzta balioesteko prozedura jasotzen duen eranskinaren arteko koherentzia faltak argitasunik eza eragiten du lizitazioa lortzeko prestakuntza eta esperientziaren baldintzei buruz. Egoera horrek zalantza sortzen du eskaintzaileen artean eta ez ditu lehia gehitu dezaketean eskaintzak sustatzen.

HIRUGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritzaren ustez, HAZI Fundazioak mahats-uzten balioespen-zerbitzuak kontratatzeko lizitazio-pleguan BJD/AGBren uzten balioespenerako zerbitzua ematen gutxienez eskatutako



hiru urteko esperientzia, merkatuan behar ez den sarrerako oztopoa da eta gaiari buruz nahikoa ezagutza duten profesionalak lizitaziotik kanpora uzten ditu.

Justifikazio nahikorik ez dagoenez, eta eskakizuna ordena, segurtasun eta osasun publikoarekin edo ingurumena babestearekin lotutako arrazoiengatik dela frogatu ez denez, Lehiaren Euskal Agintaritza honek eskakizun hori ez litzatekeela eskatu behar uzte du, eta kendu egin beharko litzateke.